



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2009-03-10**

VIIURTEA 1.649.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Belauntzan, Berastegin eta Berrobin santuen irudiak lapurtu dituzte

TOLOSALDEA Larunbat gauean egin zuten lapurreta San Jose, San Anton eta San Sebastian basilizetan

ONDAREA Elizbarrutiko museoko zuzendariaren ustetan «irudiek ez dute balio ekonomiko handiegirik» 6



Andalucia-Cajasur taldeko Jorge Martin Montenegro helmuga zeharkatzen, herenegun. IDOIALAHIDALGA

MONTENEGRO AIZTONDO KLASIKOAN AZKARRENA

TXIRRINDULARITZA Azken igoeran nagusitu zen Andalucia-Cajasur taldeko txirrindularia; Villabonako Artola izan zen eskualdeko lehena 4

CAFen lanean ari zen Tolosako Añi enpresako langile bat hil da

TOLOSA 45 urteko andoaindarra garabi batek bota zuen lurrera, heriotza eraginez 2

Euskadiko Txapelketako lau txapela lortu dituzte eskualdekoek

PILOTA Zazpi-Itturrik bitik bi eskuratu ditu, eta Aurrera-Saiazek, berriz, hirutik bi 5

Ez da leitzarrik ariko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean

LEITZA Azken finalurrekoa eta gero, 'Luze' 12. postuan geratu da 7



CAFek azpikontrataturiko Añi enpresako langile bat hil da istripuan

Lan istripua » 45 urteko andoaindarra garabi baten gainean ari zen lanean; beste garabi batek bota zuen, heriotza eraginez.

ERREDAKZIOA

Atzo goizean 45 urteko langile bat hil zen lan istripuan CAF enpresan, Beasain eta Lazkao udalerrien artean dituen tailerretan. Langilea, andoaindarra, azpikontrataturiko Tolosako Talleres Mecanicos Añi enpresarentzat ari zen lanean.

07:45 zirenean gertatu zen ez-beharra CAFek Lazkaibarren dituen tailerretan, autobideko zubiaren ondoko pabiloi batean, Beasain aldera. 45 urteko A. U. T. langilea garabi baten gainean ari zen konponketa lanak egiten. Beste lankidea erraminta batzuen bila behegarra jaitsi zen bitartean gertatu zen istripua. Albo nabean martxan zebilen beste garabi batek jo egin zuen, eta kolpea jaso ondoren lanean ari zen garabiaren gainetik plataforma batera erori zen. Arnesa jantzita zeukan arren, kolpearen eraginez momentuan hil zen.

Osalar erakundeko teknikariak heriotza ikertzen ari dira CAFen.



Langileak, atzo goizean, CAF enpresaren atarian. GOIERRIKO HITZA

Iturri batzuen arabera hildako langileak prentsak konpontzeko zeregina zuen, eta beste enpresa batek egin behar zuen lana, garabien gainean ibiltzeko baimen eta kualifikazio bereziak behar direlako. Ez dute argitu zergatik igo behar izan duen berak.

Aipatu bezala, hildako langilea azpikontrataturiko Tolosako Talleres Mecanicos Añi enpresarentzat ari zen lanean CAF Construcciones y Auxiliars de Ferrocarriles

enpresan. Andoingoan zen, eta 45 urte zituen.

CAFeko langileek 24 orduko lanuztea egingo dute

Langile andoaindarren heriotza salatuzko 24 orduko lanuztea egingo dute CAFeko langileek. Atzo goizean, istripua gertatu ondoren, batzarrean bildu ziren, eta bertan erabaki zuten gaur goizeko 10:00ak arte geldirik egotea.

Bestalde, gaur, 09:00etan bilku-

ra egingo dute langileek lantegiarren aurrean. Ordu erdi egongo dira lan istripua salatuzko. Andoainen, hildako langilearen jaioterrian, LABek deituta, atzo iluntzean egin zuten elkarretaraztea.

Bestalde, UGT sindikatuak Eusko Jaurlaritzari exijitu dio segurtasun neurrien gainean kontrol handiagoak ezarri beharko litzatekeela, eta enpresa askok lan egiten duten lantegietan koordinazio handiagoa egon beharko litzatekeela.

Sasikoa liderraren aurka 8-5 irabazi du Laskorain areto futbol taldeak

ERREDAKZIOA

Jardunaldi honetan liderraren bisita jaso zuten horitxoek Usabalén, Sasikoa durangararen bisita, hain zuzen. Partida «oso ona» burutu zuten etxekoek, lehen minututik azkeneraino nagusitasunez menperatuaz. Azkenean, 8-5 izan zen emaitza.

Baloia gogor presionatu zuen etxekoen zonako defentsak min handia egin zien durangarrei eta honetaz gain horitxoek baloia ere ederki eta abiadura handiarekin jokatu zuten, nola eraso posizionalan nola kontraerasoan. Gainera, denboraldian orain arte gertatutakoaren kontra, kantxa gaineko nagusitasuna markagailura eramaten ere bikain asmatu zuten, Alonsoren mutilek. Golegileak Murgi, Telletxea, Barriola eta Zubillaga izan ziren.

Egindako lanagatik harro eta pozik daude Laskorainoak, baina aste honetako Astigarragako derbia dutela burua aipatu dute bertako ordezkariak.



Ahoz-aho jaialdiak atek ireki ditu

KULTURA » Asvineneak antolatuta, atzo hasi zen Ahoz-aho jaialdia. Lehenengo saioa Asvinenean bertan izan zen, Peio Añorgarekin. Gaur, bestalde, Bedaio auzoan egitekoa zen saioa, baina azkenean emanaldi hori San

Esteban auzoan izango da, ordu berean, hau da, 19:00etan. Itziar Rekalde ariko da ipuinak kontatzen, euskaraz. Bihar, Maite Frankoren txanda izango da, 19:00etan, Urkizun. I. GARCIA

Laburrak

Presoen aldeko sagardotegian irabazlea

GIZARTEA » Inauterietan Presoen aldeko sagardotegian Urdaiazpikoaren porra egin zuten, eta saritua Orexako Eugenio izan dela azaldu dute antolatzaileek. Izan ere, bera gerturatu zen gehien 6.245 gramora, 6.250 gramo esan baitzuen. Antolatzaileen partetik zoriarik irabazleari.

Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia zabaliak

GIZARTEA » Amarotz Auzo Elkarteak antolatuta, Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia zabaliak egongo da Tolosako Kultur Etxean, gaurtik larunbatera arte 15:00etatik 18:00etara, eta larunbatean eta igandean, goizez, 10:00etatik 14:00etara ere bai.

Ela sindikatuaren batzarra eta manifestazioa, gaur

EKONOMIA » ELA sindikatuak *Abertasuna Banatu* kanpainaren baitan, gaur Oria-Goierrri eskualdeko ordezkarien batzarra egingo du, 10:00etan Leidorren. Ondoren, manifestazioa egingo dute.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Emakumeen aldarriak nonahi

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Herenegun ospatu zen Emakumearen Nazioarteko egunean, Ugarten, Hernialden, Urkizun eta Leitzaan (irudietan) ere ekitaldiak antolatu zituzten. Lehen hiru herrietan mahaiaren inguruan ospatu zuten, bazkari eta afariarekin. Gazteluko emakumeak ere Lizartzako Joxemari jatetxean elkartu ziren. Leitzaan, Bilgune Feministak deituta elkarretaratzea

egin zuten *Emakumeak gure gorputzaren jabe* lelopean. Taldeak salatu duenez, 25-30 bat lagun bildu ziren plazan eta «une oro 5-6 guardia zibil» izan zituzten parean. Azken unean -oharra irakurtzen hasi behar zutenean- «20 lagun baino gehiago geundela argudiatu eta identifikatzeko eskatu ziguten». Ekin honetan bi pertsona identifikatu zituzten. **HITZA**

Alpino Uzturrekoek Gorbeia eta Arralde igoko dituzte

Tolosa » Iganderako antolatu dute irteera; izen-ematea dagoeneko zabaldu dute telefonoz, internetez edo elkartearen.



Gorbeia mendia igoko dute igandean Alpinoko mendizaleek. **HITZA**

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre elkarte mendizaleak egun osorako txangoa antolatu du datorren martxoaren 15erako, igandearrekin. Ibilbidea Zarate-Ubidea izango da. Bidean igoko dituzten mendiak Gorbeia eta Arralde izango dira, 1481 metro eta 945 metrokoa, hurrenez hurren.

Irteeran parte hartzeko izen-ematea zabalik dago dagoeneko, eta Alpino Uzturre mendi elkartearen egoitzan bertan egin daiteke (Gudari kalea, 5) 20:00etatik aurrera. Beste bide bat ere zabaldu dute internetez, alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikoko-

an, hain zuzen ere. Halaber, informazio gehiago eskura daiteke 943 65 27 89 telefono zenbakian.

Igandean, 07:30ean abiatuko dira autobusen, Santa Klarako geltokitik.

Oargikoak zubian kanpora

Tolosako bigarren mendi elkarteak, Oargik, zubirako antolatu du irteera Pirinioetara, Aran bailarara. Irteeran parte hartzeko 688 69 842 telefono zenbakira dei daiteke martxoaren 16a baino lehen.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta trenbideen arteko berrak
Pasaia eta Tolosa arteko linea
Tolosa, Zarate, Zarate, Irujo, Argandoña...
Mundak kalea, 34 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA
www.diezautobusak.com

Montenegrok irabazi du VI. Aiztondo Klasikoa

Aiztondo » Alkizako azken igoeran nagusitu zen; Artola billabonatarra izan zen eskualdeko lehen sailkatua, hamabosgarren.

IMANOL GARCIA

Andalucia-Cajasur taldeko Jorge Martin Montenegro txirrindulariak irabazi du VI. Aiztondo Klasikoa. Proba «ikusgarria» izan da, antolatzaileen esanetan. Aiztondo elkartekoek gaineratu dutenez, «oso gustura gaude proba nolako izan den ikusita. Eraso asko izan dira proba guztian zehar eta azken momentura arte ez da erabaki irabazlea». Ugaitz Artola billabonatarra izan zen Klasikoaren protagonista izan zen Klasikoaren protagonistetako bat, ihesaldietan parte hartzen, baina azkeneko igoeran indarrak huts egin zion eta hamabosgarren amaitu zuen.

Espainiako Koparako baliagarria da Aiztondo Klasikoa eta Montenegro Koparen sailkapeneko lehen postuan zela hartu zuen parte. Aiztondon irabazi ondoren, sailkapeneko lehen postuan gehiago indartu da 25 urteko txirrindulari argentinarra. Montenegrok erakustaldia eman zuen Alkizara egindako azken igoeran, benetan balio zuenak, bertan erabakitzen baitzen irabazlea. Boskote batek ekin zion Alkizako mendatea igoetzeari. Atzetik, besteak beste, Montenegro zegoen taldetxo bat

zuten minutu batera. Argentina-rrak sekulako igoera egin zuen eta lehen postuetan zeuden txirrindulariak gainditu zituen. Bigarrena izan zen Francisco Jabier Martinezi (Cafes Baque) eta hirugarrena izan zen Francisco Jabier Iriarteri (Lizarte) sei segundoko tartea ateratzen.

Ikusgarria izan zen Sarasola sagardotegiko igoera ere. Bertan ihes egin zuten gero Alkizako mendatearen hasierara aurretik iritsi zen boskotea. Tartean, esan bezala, Ugaitz Artola zegoen. Antolotzaileek uste zuten Sarasola sagardotegiko mendate horretan erabakiko zela Klasikoa, baina azkenean, ihesi joan zirenak ez zuten nahiko abantaila lortu, batez ere, Montenegroren nagusitasunari aurre egiteko. Sailkapenei errepaso eginez, 23 urte azpikoetan Mikel Landa (Naturgas) izan zen lehenengoa. Taldekoan Comunidad Valenciana gailendu zen, mendikoan eta sprint berezietan Gonzalo Zanbrano eta tarteko helmuetan Julen Gonzalez.

Udalekin akordioa berritzeko

Aiztondo elkarteak Aiztondo bailarako sei udaltxerekin duen akordioa aurten bukatzen da. Beraz, akordioa berritzeko bilduko dira. Klasikoa antolatzen dutenek azaldu dutenez, «beharrezkoa da udalen laguntza probak aurrera egin dezan. Gaur egun enpresei laguntzak eskatzea oso zaila da».



Podioan ezkerretik eskuera: Mikel Landa, F.J. Martinez, J.M. Montenegro, F.J. iriarte eta Gonzalo Zanbrano. IDOIA LAHALDALGA



Sarasola sagardotegirako igoera; Ugaitz Artola, irudian lehena. IDOIA LAHALDALGA

Laburrak

Nafarock-era autobusa Tolosatik aterako da

GIZARTEA » Eskualdeko Gazte Independentistek dei egin dute Olaztin (Nafarroa) hilaren 14an egingo den Nafarock ekitaldira joateko. Sarrerak eta autobuseko txartelak salgai daude Beasaingo Arrano tabernan. Autobusa Tolosatik aterako da 17:00etan tren geltokiaren ondok. Itzulera ordua autobusean bertan adostuko dute. Manifestazioak, ekitaldiak, elektrotxaranga eta kontzertuek osatuko dute Nafarock-en egitaraua.

Herriko festak antolatzeko bilera, gaur, udaletxean

ANOETA » Ekainaren 11n izango da aurten Korputz Eguna, eta, urtero bezala, data horren inguruan ospatuko dituzte herriko festak Anoetan. «Festak denon gustokoak izan daitezten», Kultura batzordeak deialdia egiten die herriko elkarre eta herritar guztiei parte hartzera gaur egingo den bileran. Udaletxean izango da eta 18:30ean hasiko da.

Baztanera bidaia antolatu du Alkartasuna biitokiak

ANOETA » Alkartasuna biitokiak Baztanera bidaia antolatu du apirilaren 16rako. Kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatuko dituzte. Ondoren bazkaria izango dute. Bazkariak eta autobusak 28 euroko kostua izango du bazkide denarentzat eta 30 euro ez denarentzat. Izen-ematea irekita dago. Bestalde, aurreko igandean Maria Goenaga eta Jose Maria Perezen bazkide ohien aldeko meza egin zuten.

Kultur Astearen balorazio «oso positiboa»

Anoeta » Antolatzen lagundu duten eragileei eta ekitaldietan parte hartu dutenei eskerrak eman dizkie Udalak.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak «oso balorazio positiboa» egin du bukatu berri den Kultur Asteaz. Ekitaldiei errepaso eginez, kontuan izan behar da Idoia Sanchez ipuin kontalararen saioa ez zela burutu eta apirilaren 2an egingo dela. Bestalde, 60 bat entzule egon ziren Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak emandako txistu eta eskusoi-
nu «kontzertu bikainean». Entzuleetatik 40 inguru Loatzo musika eskolakoak eta besteak herritar izan ziren. Gazako historia eta egungo egoerari buruzko hitzaldian dozena bat lagun elkartu zi-



Xake Txapelketan parte hartu zutenak eta larunbatean egin zen haurrentzako emanaldiaren une bat. HITZA

ren Gaztetxean, Tamer Birawiren azalpen interesgarriak entzutera, irudiez osatuak.

Ostiralerako programatuta zegoen Zuhaitz Eguna bertan beharrean gelditu zen, eguraldiak ez baitzuen lagundu aurreko egunetan lurraren beharrek prestaketak egiten, eta ekintza hau ostegun honetan egingo da, hilak 12. Larunbat

goizean 15 lagun ibili ziren auzolanean Laxarbe erreka inguruak garbitzen, eta han botata zegoen zabor pilo bat ateratu zuten: plastikokoak, kubiak, eskonbroak... Baina horrenbeste zegoenez, datoren larunbaterako ere gelditu dira lanean jarraitzeko. Eta igandean 28 umek hartu zuten parte goizea eta arratsaldean jokaturako xake txapelketan.

Xake txapelketako partaide guztiek eraman zuten zeozer etxera: irabazteentzat garaikurrak egon ziren, hiru garaikur maila bakoitzeko (aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak), eta garaikurrak lortu ez zutenentzako kamisetak banatu ziren, Citroen Irovisa babesleak emanak.

Emakumeen Nazioarteko Egu-

naren harira antolatutako ekimenean partaidetza ere nabarmen-tzekoa izan da, Udalaren esanetan. 50 lagun inguruk ikusi zuten osteguneko ikastolan proiektio berezia. Bertan agertzen ziren ikastolako maila desberdinetako ikasleak jokuen, kanten eta publizitatearen ikutu sexistak lantzen. Ostiral gauetan udal areto nagusia jendez gainezka egon zen *Esker-eskuma* emakumeen antzezlanaren ikusten. Eta, amaitzek, martxoaren 8ko bazkarian 29 emakume elkartu ziren, Amaia Agirre eta Maialen Arzallusen bertsoez gozatu ahal izan zutelarik.

Udal Kultura batzordeak eskerrak eman die Kultur Astea antolatzen lagundu duten gizarte eragile guztiei eta ekitaldi desberdinetan parte hartu duten anoetar orori. «Beraiek eman diote Kultur Asteari izan duen giro ederra eta bikaina», azaldu dute batzordetik.



Sukia Aurrera-Saiazkoa eta Markinako pilotaria, Euskadiko Txapelketan. N.U.

Euskadiko Txapelketako lau txapela irabazi dituzte

Pilota » Zazpi-Itturrik bitik bi, eta Aurrera-Saiazek hirutik bi eskuratu dituzte, kadeteen, Ohorezkoen eta 22 urtez azpikoen mailatan.

N. URBIZU

Euskadiko Txapelketako bost final jokatu dituzte asteburu honetan, Aurrera-Saiazkoek eta Zazpi-Itturrikoek. Bada, bostetik lau irabazi dituzte. Zazpi-Itturrikoek 22 urtez azpikoena (Ropon-Leunda) eta kadeteena (Gallurralde-Jaka) zuten eta 22-14 eta 22-7 irabazi dituzte. Aurrera-Saiazko 22 urte azpikoena (Albisa) eta Ohorezko mailako banakakoa (Onsalo) eskuratu dituzte. Aurten, ez da posible izan Ohorezko mailako binakakoa irabaztea, baina «oso borrokatua» izan zen, 19-22, hain zuzen ere.

Amezketakoek «pozik egoteko arazoak dituzte. Ropon-Leundak ez dute partidarik galdu liga

osoa gainera. Bi Aizpe pilota eskolako Iriarte-Arana ziren aurkariak, hau da; Burlatako torneoan aritutako aurkari berdinak. Kasu hartan garaipena nafarrentzat izan zen, baina oraingoan, amezketarrentzat. «Partida luzea izan zen, eta borrokatua nahiz eta aldearekin bukatu».

Jakak eta Gallurraldek osatutako bikoteak «erraz» irabazi zuen finala, 22-7 Etxarrikoen aurka jokatu ostean.

Aurrera-Saiazko final estuak

Aurrera-Saiazko dagokionez, hiru finalak oso estu joan ziren, emaitzei erreparatu behinik behin. 22-19 Huarateko 22 urte azpikoaren kontra, 22-21 Ohorezko mailako Usansolokoaren aurka eta 19-22 Ohorezko mailako Adiskidekoen aurka bukatu ziren finalak.

Gogoratu behar da ere, bi pilota eskolak sendo aritu direla Euskadiko Txapelketan eta finalak bakarrik ez, finalerdi asko ere jokatu baitituzte.

'Kabitik plazara' bertso-bazkarirako txartelak salgai, etzira arte

Alegia » Kultur Etxean izango da larunbatean, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldiarekin batera; 14:00etan hasiko da.

ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean Txolarre iratiak eta Zazpi Astoren Gainean bertsoeskolak Alegian bertso-bazkaria antolatuko dute, *Kabitik plazara* deiturikoa.

Kasu honetan gonbidatu dituzten bertsolariak hauek dira: Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze, hain zuzen ere. Gai-jartzaile lanetan Iker Iriarte alegiarra izango da.

Bertara joateko txartelak Alegiako tabernetan daude (Ixkiña, Etxeberriaren, Kafan, Jubilatueñean) eta baita Kultur Etxean ere. Etzira arte egongo dira salgai, 18 euroan. Honen baitan, menua eta bertsolarien saioa sartzen dira. Bazkaria Kultur Etxean izango da, 14:00etan hasita.

Laburrak

Gaur, Katxalin elkartearen eskutik hitzaldia izango da

ALBITZUR » Gaur Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen elkarteak antolatuta, gai honen inguruko hitzaldia izango da 17:00etan Albizturko Kultur Etxean. Bularreko minbiziaren detekzioari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta honi buruz ondo informatuta egotea funtsezkoa da guztientzat. Hitzaldia, Donostiako Onkologiko Institutuko Doktorea den Arrate Plazaolak emango du. Bertan, bular minbiziaren arazoien azterketaz, tratamenduz, prebentzioaz... hitz egingo dute.

Hilabete osoan, 'Iparretik hegora hankaz gora'

ALEGIA » Ainhua Arregik, Amaia Aramendik eta Arrate Iturbek egindako argazkien erakusketa dago ikusgai Alegiako jubilatuen tabernan. Peruko, Argentinako eta Mozambikoko argazki hauek hilabete osoan zehar izango dira ikusgai, hilaren 29ra arte, hain zuzen. *Iparretik hegora hankaz gora* izena jarri diote bilduma honi. Lurralde hauetako jendea, ohiturak eta paisaiak biltzen dituzte argazkiek. As-teartetik igandera bitarte daude ikusgai.

Intxurrek, 4-1 irabazita, postu bat irabazi du

ALEGIA » Intxurrek asteburuan 4-1 irabazi du Gure Txokoa futbol taldearen aurrean. Saikapen nagusian goian dagoen taldea da Gure Txokoa eta ederki egin zion aurre Alegiako taldeak. Garaipen honen lurraldekoen igoera faseko 6. postuan daude, 12 puntuekin. Datorren jardunaldian, hirugarren doan Ordiziaren kontra jokatu dute alegiarrek, Alegian.

Udaberri Txapelketako Aurrera-Saiazko emaitzak

BIDANIA » Udaberri Txapelketa jokatzin ari dira gure hainbat pilotari. Aurrera-Saiazkoek Bidanian jasotako emaitzak hauek izan dira: Gurrutxaga-Beldarrain mailan Usurbilgoen kontra 15-22 galdu zuten; jubilenen mailan Otaegi-A. Galarragak 6-22 galdu zuten Iluperen aurka. Hondarribikoen aurka Egiguren-Arregi jubilenek 22-11 irabazi zuten.

Gaur Galarretan, Zeberio II-Gaztelu bikotea jokatzin

ERREMONTA » Gaur Galarreta frontoian 16:30ean hasita, erremonte partidak izango dira. Bigarren norgehiagokan Zeberio II-Gaztelu Urriza-Iriarteren aurka ariko dira. 40era jokatu dute. Lehenengo partida Matxin IV-Etxezabal eta Ibarzabal-Baleztenaren artekoa izango da. Azkena Zulaika-Urko eta Etxabell-Olazarren artekoa da.

Hilaren 28an Albizturko Udalak sagardotegira irteera antolatu du

ERREDAKZIOA

Hilaren 28rako, larunbata, sagardotegira irteera antolatu dute Albizturren. Afaria Adunako Aburuz sagardotegian izango da. 20:00ak aldera herriko plazatik abiatuko dira autobusez. Ondoren, afalostean, 00:00ak inguruan berriro autobusa joango da bila sagardotegira.

Autobusa lehenengo Hernanira joango da, nahi duena han uzteko, eta ondoren Albizturrera itzuliko da. Goizaldean berriz, 04:30ak in-

guruan berriro autobusa irteera da Hernanitik, han geratu direnak herrira hurbiltzeko.

Irteeraren prezioa 33 eurokoa izango da. Honen baitan sartzen dira afaria eta joan-etorriko autobusa. Izen-ematea udaletxean bertan egin daiteke, hilaren 25a arte.

18 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute joateko. Bestalde, izena emateko garaian, zehaztu egin beharko da zein ordutan itzuli nahi den etxera.



Enirio-Aralar eta Larrondoko larreak maiatzaren 1ean irekiko dituzte. LIZARRUSTI

Larrondora abereak eramateko izen-emate epea zabaldu dute

Amezketak » Udaletxean eman behar da izena, hilaren 19a baino lehen eta bertan ordaindu beharko da ordaindu beharrekoa.

ERREDAKZIOA

Idatzi honen bidez jakinarazteko eman du Amezketako Udalak, Larrondora behiak eta ardiak larrertzeko epea maiatzaren 1ean ireki eta 2010eko martxoaren 31n amaituko dela esateko.

Izen-ematea udaletxeko bulegoan egin behar da, ordainketaekin batera (ardi bakoitzeko 0,60 euro, eta behiak eta behorrak 9 euro buruko), hilak 19, San Jose eguna baino lehen. Beraz, 9 egun daude izena emateko. Horien artean, behorrak larrertzeko epea Pilarika egunean irekiko da, urria-

ren 12an, eta 2010eko martxoaren 31n bukatu.

Deialdi hau ganaduzale guztiei eta baita udazkuzen ganaduak botatzen dituzten ganaduzaleei ere zuzenduta dago. «Garbi gogorazazi eta jakinarazi nahi du Udalak, nahiz eta ganadua udazkenean larreratu, udaletxean apuntea orain eman behar dela ordainketa-ekin batera». Neurri horri «jarraipen zehatza egingo diogu eta agindu hau betetzen ez bada, Amezketako Udalak bere neurriak hartuko ditu».

Larrondora ganadurik ez da zuzenean eraman behar, baizik eta Enirio-Aralarko larreetara lehenik, zuzenean hara, maiatzaren 1ean.

«Mesedez eskatzen da» landatuta dagoen landare gaztea eta itxiturak errespetatzeko, landareen-gan kalterik sortu ez dadin.



Berrobiko San Sebastian basilizan ateko sarraila hautsita sartu ziren santua lapurtzeko; eraikina 1551. urtekoa da. R. CALVO

Belauntza, Berrobi eta Berastegiko ermitetan santuen irudiak ostu dituzte

Lapurreta » Larunbata eta igandea bitarteko gauean lapurtu zituzten irudiak; Ertzaintza lapurreta ikertzen ari da oraindik.

REBEKA CALVO

Berrobi, Berastegi eta Belauntzako hainbat herritarrek jakinarazi dutenez, larunbata eta igandea bitarteko gauean aipatu herrietako baselizetako santuen irudiak lapurtu dituzte.

Zehazki, Belauntzako San Jose, Berrobiko San Sebastian eta Berastegiko San Antonen irudiak dira ostu dituztenak.

Lapurretaren salaketa igandean 07:30ak inguru egin zuten eta Ertzaintzak esandakoaren arabera, oraindik ere lapurretak ikertzen ari dira. Antza lapurrak Berastegi-

ko baselizara teilatutik sartu ziren eta beste bietara ateko sarraila hautsita sartu ziren.

Berrobin baseliza inguruan bizi diren bizilagun batzuek HITZARI esandakoaren arabera, eurek ez zuten ezer susmagarririk nabaritu, baina beste bizilagun baten hitzetan «auto dotore bat ibili zen ermitaren inguruan», nahiz eta ez duten ezer zehatza ikusi.

Balio ekonomiko gutxiak

Koldo Apestegek, Gipuzkoako Elizbarrutiko museoko zuzendariak, argitutakoaren arabera gaur joango dira baselizetara inbentarioa egiteko eta orduan izango dituzte datu gehiago.

Hala ere, Apestegek ez du uste irudi hauek balio ekonomiko handiegia dutenik ere. «Saltzeko ere arazoak izan ditzakete, nahiz eta egia esan Sevillako, Valentziako

edota urrutiko beste toki bateko antigoalekoen saltzailerren batek erosi ahal dituen», gaineratu zuten.

Ondare historikoa

Santuen irudiak balio ekonomiko handirik ez badute ere, balio historikoa handikoak dira. Izan ere, antzinako irudiak dira, urteetan herriko bizilagunek ardua osoz gordetzen eta zaindutaok.

Berastegin hiru baseliza daude: San Sebastianekoa, Larreko San Lorenzokoa eta San Antonekoa, lapurreta egin dutenekoa, hain justu. San Anton baseliza San Sebastianekotik oso gertu dago eta angeluzuzeneko oinarri du, sarrean, gainera, hiru arku ditu. Gaur egun San Anton (urtarrilak 17) egunean ospatzen dabertan elizkizuna, non baserri eta etxeetako animaliak bedeinkatzen dituzten. Berrobiko San Sebastian baseliza,

aldiz, aurrealdea, kanpoaldea eta tenplua bera banatzen dituen egur-langa ikusi daiteke. Erretaula xume bat dauka, polikromatu gabekoa, eta aldrean izan ohi da ostutako San Sebastian eskultura. Goialdean Garbikundearen olea ere badago. Badirudi 1551. urtekoa dela eraikina. Egun meza bakarra ospatzen dute bertan, urtarrilaren 20an, arratsaldean, San Sebastian egunean, hain zuzen.

Belauntzako San Joseri dago-kionez, aldiz, ataria da elementurik aipagarriena, izan ere honen gainean dago korua, beranduago gehitu zizkiotelarik sakristia eta dorrea. Barruan, lapurtutako San Joseren irudia gordetzen dute, erretaularen erdian. Azkenaldian bertan egiten dituzte elizkizunak, gainera, izan ere herriko eliza oso kaltetua dago eta berri bitartean itxita dago.

Laburrak

Ostiral honetan hasiko da Aste Misiolaria

IBARRA » Ostiralean hasiko dira urtero Ibarrik Misió Taldeak antolatutako Aste Misiolaria. Horiek horrela, ostiralean elkartasun afaria egingo dute 20:30ean. Hilaren 17an, aldiz, 20:00etan Rosario Berribenek Caritasek etxerik gabeko pertsonentzat duen proiektu berria aurkeztuko du. Hilaren 18an 20:00etan Aitor Zulaika eta Eder Pikazak Proye-Proega GKEarekin Argentinan izandako esperientzia azalduko dute. Bukatzeko hilaren 23an 20:00etan Marcelino Arias ekudortarraren hitzaldia izango da. Aipatu ekitaldiak parrokiako lokaletan izango dira.

Ipuin kontalari saioa egongo da ostegunean

IBARRA » Ostegunean, hilak 12, Ibarriko Udal Liburutegiak antolatuta, ipuin kontalari saioa izango da herriko Benito Izagirre Kultur Etxean 17:30etik aurrera. Zehazki, Miriam Mendozak zuzenduko du eta 2-4 urteko haurrei zuzenduta dago. Aipatu behar da Mendozak gehiagotan ere izan dela Ibarrian.



Miriam Mendozak, HITZA

Oraindik ere ONA txartela egiteko aukera dago

IBARRA » Ibarriko Udalak gogorazi duenez, hilabete honetan zehar asteazken eta ostiraletan, 16:00etatik 20:00etara, egin ahal da ONA, Osasun Txartel Elektronikoa berria, herriko Kzgunean (Ibai-Gain, 6 behea). Zerbitzua doakoa da eta OTI txartela duen 16 urtetik gorako edonork egin dezake. OTIa eta NAN aurkeztu behar dira ONA egiteko.

Hilberria



MANUELA JUARISTI UZIN

Andrea

(Perfecto Larrañaga Iruretauren alarguna)

Atzo hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren animaren zuzendaria: Koldo Larrañaga; seme-alabak: Enrike eta M^a Angeles Aranbarri, Koldo (Aita Pasiotarra), Jose M^a eta Montserrat Telletxea, Gemma eta Esteban Uzin, eta Jabier (Peru) (¡); bilobak: Endika eta Maite, Eneiz eta Ignazio, Manex eta Maitane, Mikel eta Mireia, Haizkurgi, Egoitz, Maren eta Garikoitz; koinatu-koinatak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidiek. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dituzte eta harren etor zaitzetzela GAUR, asteartea, arratsaldeko 19:30ean, Azkoitiko Arna Birjinen Jasokundeko parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Oharra: Hilbeila Azkoitiko tanatorioan egongo da. Errosario Santua arratsaldeko 19:15ean elizan bertan errezatuko da.



AZKOITIA
2009ko martxoaren 10a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Migel Mari Elozegi, 'Luze', finaletik at gelditu da. Argazkian ezkerretik hasi eta lehena. BERTSOZALE ELKARTEA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean ez da leitzarrik egongo

Leitza » Azken finalurrekoa jokatu eta kontaketak egin ostean, Migel Mari Elozegi, 'Luze', 12. postuan gelditu da.

ASIER IMAZ

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2009 urtarrilaren 31n hasi zen oinez *Bidean* leloarekin. Lau lehen kanporaketetara 24 bertsolari aurkitzen ziren, euren artean bi leitzar. Bere lehen saioan Diego Riaño bidean gelditu zen, finalurrekoetara ez baitzen igaro. Migel Mari Elozegi, *Luzek*, aldiz aurrera egin zuen.

Hiru finalurreko jokatu ostean, azkena pasa den asteburuan, 18 bertsolaritatik zortzik bakarrik lortu dute azken saiorako txartela. Kasu honetan, *Luze* izan da bidean gelditu dena, finalaren ateetan.

Finalurrekoan, hirugarren

Migel Mari Elozegi bigarren finalurrekoan aritu zen bertsoan, Altsasun otsailaren 28an. Saio hartan hirugarren postua lortu zuen Xa-

bier Silveira eta Jon Elizetxeren atzetik. Leitzarrek 299,5 puntu bildu zituen. Lehen finalurrekoa kontutan hartuta, *Luze* zortzigarren postuan aurkitzen zen, baina beste finalurreko bat gelditzen zenez, eta saio bakoitzeko irabazleak zuzenean azken saiorako txartela zuenez, Elozegi jada finaletik at aurkitzen zen.

Hirugarren eta azken finalerdia ezusteko bat ekarri zuen berarekin. Saioa amaitu ostean, sailkapen orokorrean zortzigarren postuan hiru bertsolari aurkitzen ziren, 307,5 punturekin berdinurrik. Epaila bakoitzak hiru bertsolari emandako puntuazioen azterketak, Ander Fuentes *Iturriri*ren alde egin zuten, ondorioz, Zubietako semea finalean egongo da.

Finala Elizondon hilaren 21ean

Kontuak kontu, dagoeneko azken txanpan sartu da aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa.

Azken urteotan bezala, Elizondoko Lur aretoan izanen da finala, hilaren 21ean, 17:00etan hasita. Bertan zortzi bertsolari egonen dira: Xabier Silveira (346,5 puntu),

Julio Soto (334 puntu), Ifñigo Olaetxea (322,5 puntu), Erika Lagoma (331 puntu), Xabier Legarreta (316 puntu), Julen Zelaia (308,5 puntu), Jon Barberena (308 puntu) eta Ander Fuentes *Iturriri* (307,5 puntu).

Nafarroako Bertsozale Elkarteak jakinarazi duenez finalerako sarrearak 10 eurotan daude Bertsozale Elkarteak bazkideentzat, eta 15ean gainerakoentzat, (16 urtetik beherakoentzat ere, 10 euro). Sarrearak alde aurretik erosi ahal dira Elkartearen eta Iruñeko Karrikadendan.

Ohikoa denez, finalaren ostean afari mundiala egingen dute Elizondon bertan. Aurten Antxitonea jabetxe-trinketean izanen da afaria. Afariaren prezioa 20 eurokoa da, eta lekua mugatua da, hortaz afari-afari asmooa duenak alde aurretik eskuratu beharko da txartela.

Sarreraren edota afariarako erreserbak egiteko: 948143747 telefono zenbakira deitu beharko da, edota ondorengo helbide elektronikora idatzi: nafarroakotxapelketa@bertsozale.com.



Nafar Jokoan inguruan haur ugari mugitzen da asteburero. HITZA

Oinatz Bengoetxeak eta Belokik finala euren eskuetan dute

Leitza » Aurrerakoek partida ugari jokatu dituzte, Nafar Jokoetan, Txapelketa ezberdinetan eta Emakumea Pilotari Irekian.

A. IMAZ

Bengoetxea VI.ak eta Belokik finala jokatu edo ez, hori erabakiko da Ligaxkako azken partidari. Aurrean ordea, Olaizola II-Mendizabal II.a egongo dira eta hauek ere kinkaberean aurkitzen direnez, ez da erraza izango.

Eta atzera begiratuta zer? Juan Martínez Irujoren itzala geroz eta handiagoa dela. Musikajo, dantza eta oinak zapaldu; iberoarrak dena egiten du. Goñi III.aren laguntzaz jadanik finalean aurkitzen da pilotaririk erabakigarriena, igandean Eibarren Bengoetxea VI-Beloki 18an utzi ostean.

Donostian azken aukera

Eskuz Binakako Txapelketaren Ligaxkan azken partida jokatu dute igandean Oinatz Bengoetxeak eta Ruben Belokik Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Txapelketa euren azkena sueta ez dadin, garaipenak bakarrik balio die. Aurrean iazko txapelkun edukiko dituzte, hau da, Olaizola II-Mendizabal II.a.

Iragan asteburuko jardunaldian, leitzarrek eta burlatarrek lan handia egin zuten baina aurrean joko sortzailerik handiena zuten, behetik gora egin duen atzelari baten babesarekin. Partida osoan berdinurrik joan ostean, amaiera aldera Irujo-Goñi III.ak aurre hartu zuten eta partida, ligaxkako bigarren puntua eta finalerako txartela erdietsi zituzten.

Aurrerako pilotariak

Emakumea Pilotari Irekian 30-10 irabazi zuten Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak.

Nafar Jokoetan berriz partida ugari jokatu zituzten leitzarrek, hona hemen hainbat emaitza: Anartz Olano-Ibai Barberena 18-15 irabazi zuten Ander Garciaarena-Mikel Sagastibelza E-ren aurka. Ander Alduntzin-Joseba Eskudero 12-18 galdu zuten, Muenala-Sukuntza 6ean gelditu ziren eta Igartua-Gil 4ean. Julen Goikoetxeak eta Lenitz Galartzak 18-11 irabazi zuten euren partida, Xabier Eraso eta Mikel Onsaloren gixan, hauek 22-15.

Txapelketei dagokionez, Errekako Txapelketan finala irabazi zuten Anartz Olanok eta Jon Iparragirrek Donezteben, 18-5. Lezamakoan, Jaunarena eta Zabaleta 22-17 nagusitu ziren finalurrekoetan. Azkenik, Berria Txapelketan, Jaunarena-Taintak 22-18 irabazi zuten Ezkurdi-Lukini.

Laburrak

Atsauren inguruko bilera gaur 20:00etan Aurreran


LEITZA • Inauterietako Atsauren balantzea egiteko bilera egingo dute gaur Aurrera Elkartearen 20:00etan. Leitzako Inauterizaleak eta Leitzako Kultur Taldeak antolatuta dute batzarra. Bi talde hauek herriarrei bertara agertzeko dei egin dute. Bilera irekia dela jakinarazi dute, gai honetan interesa duen edonorentzat.

Kantujiran bilduko dira ostiralean 19:30ean

LEITZA • Kantujira ekitaldi berria egingo dute hilaren 13an, ostiralean. Ohi bezala, Aurrera Elkartearen elkartuko dira kantuzaleak 19:30ean. Herriko hainbat musikariren laguntzaz euskal abestiak kantatuko dituzte Kantujiran. Herriarrei parte hartzeko deialdia luzatu diete ekimenaren sustatzaileek.

Xiberoa ezagutzeko aukera hilaren 14an, larunbatean

LEITZA • Mendibil Mendi Taldeak Xiberoara egun pasa antolatuta du hilaren 14an, larunbatean. Goizean Holtzarteko zubira ibilaldia egingen dute eta bazkal ostean Mauleko plazan Maskarada ikusiko dute. Joan nahi duenak mendibilaurrea@hotmail.com helbidean, Astiz edo Maimur-en eman beharko du izena etzi baino lehen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Altzo.** 19:30ean *Amafrika* bideo emanaldia izango da Kultur Etxean.

■ **Bedaio.** Itziar Rekalde ipuin kontari ariko da Bedaion 19:00etatik aurrera, Ahoz aho Nazioarteko ahozkotanaren jaialdiare baitan.

■ **Tolosa.** Barreterapia eta garapen pertsonaleko ikastaroa izango da martxotik maiatzera bitarte: autoestima, adimen emozionala, giza harremanak, barrea... Bestetik, Meditazio eta gizakiaren psikologia ikastaroa martxotik maiatzera bitarte. Informazio gehiago 943 118669 telefono zenbakian.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** ESCIVIko ikasleek egindako laburmetraien emanaldia egingo dute 18:00etatik aurrera HH-liren lokaletan (Izaskun auzoa).

Kirolak

■ **Tolosa.** Hilaren 15erako, igandeko, Zarate-Ubidea (Araba) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak. Izen-ematea, elkarte (Gudari 5), 943 652789 telefono zenbakian edo alpinouzturre@hotmail.com helbidetan.

Erakusketak

■ **Alegia.** Asteartetik igandera bitarte, jubilatuen tabernan hiru herrialdetako argazkiak daude ikusgai: Argentina, Peru eta Mozambike. Gehienbat bertako jendearen argazkiak daude, gutzira 18 dira.

■ **Hernalde.** Argazki kameraren erakusketa. Hainbat tamaina eta itxurakoa, zaharrak, bitxiak,...

■ **Tolosa.** *Sida/Ihesa 8 artista 8 hausnarketa* erakusketa Aranburu Jauregian, Medicus Mundi elkarrearen hausnarketa bat da, elkarrekin berak antolatuta.

■ **Tolosa.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telf.: 943 654610.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri irizpizien erantzunik.

Hogeita hamabi gehiago

Tolosa » Igandetik aurrera 32 zuhaitz gehiago daude Amaroitz auzoan; umeek landatu zituzten eta gero hamaiketako egin zuten.

ERREDAKZIOA

Haur bat-zuhaitz bat Eguna ospatu zuten herenegun Amaroitz auzoan. Eguraldia kaxkarra aurreikusita zegoen, baina goizean ateri egon zen eta ekimena aurrera eramanez ahal izan zuten. Hain zuzen ere, 32 zuhaitz landatu zituzten, azken 2 urteetan Amaroitz jaiotako haurren izen eta jaiotza datekin.

Ekimenena haurrak izan zirenak landaketa egiteaz arduratu zirenak. Bukatu ondoren, haur laguntzailek eguneko protagonista txikiak zuhaitza nondik datorren erakutsi zieten. Hala, hazia poteetan sartu zituzten haurrek etxean landaretxoa nola hazten den ikusi eta zaindu ahal izateko.

Lanak bukatuta, auzo etxean hamaiketako egin zuten.

Auzokideek gogoratu zuten, festa egiteaz gain, «ingurua zaintzeko eta mantentzeko egiten den ahalegina» azpimarratu nahi izan zuten.

Bestalde, «egun hau naturarizor diogun errespetua eta maitasuna sustatzeko balio izatea nahi genuen», izan ere, «tamalez egunetik egunera natura kolpatuago dago



Umeek 32 zuhaitz berri landatu zituzten; ondoren, hamaiketako egin zuten. IDOIA LAHIDALGA

utzikeriarengatik eta batzuen progresoarenekin.

Ekitaldi honen helburua betetzat jo zuten, «auzo bizi, partaide eta bere beharren erantzule den auzoaz jantzen jarraitu ahal izateko».

A Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



Urte askoan!

Haritz (Belauntza).

Zure zazpigarren urtebetetzean, zorionak eta muxu bat etxekoan partetik.

tolosaldeko, leitzaaldeko eta goierriko

ostalaritza
Gida 2009

Jatetxeak, sagarrotegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen gidarik osatuena

..orain tolosaldeko-hitza.info-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuena: argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

Bilatzaile erabilgarria

Hitza guztien gida hitza.info-n

hitza info